

Isabel Etxebarria

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Independentziaren bidean

Hemen, Ipar Euskal Herrian, militanteak atxilotuak ikusten ditugu edo auzitegira aurkeztera joaten dira eta ez dira itzultzen. Jon Anzaren desagertpena iragan da eta deus gertatu ez balitz bezala joan da. Lurrealde txiki honetan politikari lotutako laugarren desagertpena da. Hirurehun mila biztanle duen eremuan ez da txantxa. Sarekada, militante gazte batzuen presondegiratzearekin. Errepresioaren bortizkeriaren maila ikaragarria da. Ez da soilik poliziaren presentzia, bideetako edo telefonoaren kontrol soila, hemen errepresioak bortizkeria maila oso altua du. Bortizkeria honek ez du loturarik hemen talde politikoen ekintzen mailarekin. Michèle Alliot-Mariek (MAM) azken urteetako hemengo politikako urrats guztiak kontrolpean izan ditu eta hobestu du ederki bortizkeria maila hori. Bera ederki ibiltzen da Donibane Lohizuneko karrketan, kontzientzia lasaiarekin, Jonen familia pena gordetzera behartua delarik. Desoreka sobera handia da, horrelako oreka politikoak ez du zentzurik. Noski, hemengo herritarrak ez du aktualitate hori hurbildik segitzen, baina galdetzen du eta nahiko beldurgarri atzematen du mundu hori. Beldurra ekartzen duelako? Ez. Abertzale den oro arriskutsua denaren sentimendua hedatu nahi delako baizik.



GAIZKA IROZ


Alta, herritarren zati bat ohartu da urtetik urtera abertzaleek salatzen zutena egiaztatzen dela eta abertzaleen proiektuak sinisgarritasuna hartzen joan dira. Gaur egun Jean-Jacques Lasserrek ere onartzen du tokiko instituzioa beharrezkoa dela. Hain xuxen abertzaleek jakin dugu proposamenak egiten, eta baita ere, tokiko errealitate gure gain hartzeko gaitasuna badagoela hemen berean.

Horrela heldu da Autonomia proiektua, errealista den proposamena, erantzun juridiko sinplea praktikan emateko. Autonomia, lehen urratsa independentziaren bidean. Hau baita nahi duguna. Ondoko hilabeteetan, autonomia aldarrikatzea joanen gara, baina bide horretan gure ametsak ez ditugu bazterrean utziko, lanean arituko gara, politikarien zain egon gabe. Elkartuko gara Nazio Eztatanda Guneak egin duen proposamenari bidea zabalduz. Denok Euskal Herri independentearen sortzeko balio baitugu. Idazleek eramaten ahal gaituzte herri berri horren proiektioaren egitera, artista orok laguntzen ahal gaituzte bide horretan ametsa egia bihurtzen, teknikari, funtzionario, langile, intelektual edo eskulanetan ari dena, etorkin edo politikaz paso egiten duena. Jauzirik ez da egiten, bidea egiten jarraituko dugu, herritarrekiko loturak zainduz. ■

Gaur egun Jean-Jacques Lasserrek ere onartzen du tokiko instituzioa beharrezkoa dela

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Omen daude paperezko hedabideak. Aste honetan horietako hirutik jaso dut aldarria, kolaboratzeko eskaintza. Ez naiz ni horien zale, ez naiz inoiz erosle izan. Bere bertsio digitalera pare bat aldiz joana nauzue kuriositatez, Interneten eskaintzen dizkidaten erraztasunak baliatuz. Erosten ditudanak ditut zigor, edozeinek irakurri baititzake digitaallean dohain, paperezkoaz gain bestelako idatziak barne. Hala ere, paperezkoa behar dut irakurri bere osoan begi aurrean dudalarik eskuetako hatzen puntak tintaz zikinduz. Lehen gainbegiradaz soa zehaztu eta atzekoz aurrera ekarriz irakurketa hautatua egin. Maite

Azkenetan

dut mahaiaren gainean ezarriz, itzulimutuzulika sailez sail bidaiatzea. Eta egunean zehar, leku jakinean kontsultagarri edukitzea nahi dut, ordenagailura ez dakit zeren bila, izan agenda, zinema kartelera edota telebista kateen programazioa begiratzera joan gabe. Inoiz norbaiten artikularen xehetasun bat berrikusi nahi baldin badut, eskura nahi izaten dut edukitzea. Guztia, euro eta gutxi. Kafe bat. Ez dut Interneten irakurritakoa ordaintzeko ohiturarik eta behartzen nautelarik paso egiten dut penik gabe, edukiak berdintsuak baitira. Lanketa gutxi, propiotik gutxiago. Antz handiegia beren artean. Kazetaritza da azkenetan dena idazkaritzaren indarrez. ■